

Noaia!!!

www.noaia.com



Larunbat honetan,
Elkartasun Eguna



Bittoriano Pikabea,
50 urtez Aginagako organoa jotzen

Otar-Goxo

E l i k a g a i a k

Gabonetako Otarrak aukera onena prezio ezin hobean



1.Otarra

"Marqués de la Concordia" D.O Rioja
"Fonpinet" Gran Reserva, Cava botila
Urdai-azpiko iberiko zorroa
Solomo iberiko zorroa
"Lodosa D.O" Esparrago lata
"Goiburu" foie medalloia
pasazko ogia
"Eceiza" 3 trufazko turroi artesanoa

60 euro

2.Otarra

"Marqués de la Concordia" D.O Rioja
"Fonpinet" Gran Reserva, Cava botila
"Ameztoi" Txakolin botila D.O
Urdai-azpiko iberiko zorroa
Solomo iberiko zorroa
"Roncal D.O" gazta
"Lodosa D.O" Esparrago lata
"Lodosa D.O" Piper pikilo potoa
Kantauriko hegaluze potoa
"Goiburu" foie medalloia
pasazko ogia
"Eceiza" 3 trufazko turroi artesanoa

100 euro

3.Otarra

"Marqués de la Concordia" D.O Rioja
"Fonpinet" Gran Reserva, Cava botila
"Prímus Ameztoi" Txakolin botila D.O
Urdai-azpiko iberiko zorroa
Solomo iberiko zorroa
"Aranburu Idiazabal D.O" gazta
"Lodosa D.O" Esparrago lata
"Lodosa D.O" Piper pikilo potoa
Kantauriko hegaluze potoa
"Arrospide" onddo potoa
"Goiburu" 2 ahate konfit
"Goiburu" foie medalloia
"Goiburu" onddo saltsa potoa
pasazko ogia
"Eceiza" 3 trufazko turroi artesanoa

150 euro



Zubiaurrenea, nº2 • ☎ 943 36 55 81 • 20170 Usurbil

Íntza

WELLATILEAPAINDEGIA

Alissi Bronte MAKILAJE IKASTAROA

- DOANIK!!! Alissi Bronte etxearen makilatzaile baten eskutik irakatsita.
- ABENDUAREN 15ean Astelehena.
- Bi aukera egongo dira, bat goizez eta bestea arratsaldez.
- Eman izena eta ez galdu kosmetikaren profesional baten eskutik ikasteko honelako aukera!!! tel:943363641



Alissi Bronte



Albistea iruditan !!

100 urte eta sasoi betean oraindik

Presentacion Arribillagak 100 urte bete zituen aurreko ostiralean. Bere etxeokok diote-nez, mendea bete badu ere, gaur egun oraindik oso bizkor dago. Gutxi dira 100 urteak betetzera iristen diren gizon-emakumeak. Hori dela eta, ondo merezia zuen udal ordezkari eta etxeokoen zorion agurra. Xabier Mikel Errekondo alkatea eta Ainara Uribe udal zinegotzia Presenen etxeraino hurbildu ziren eta opari bat ere eman zioten.

Argazkia pasa den ostiralekoa da, bere urtebetetze egunean ateratakoa. Zorionak zure 100. urteurrenean Present!



UDAL ORDEZKARI ETA ETXEKOekin OSTIRALEAN EGINDAKO ERRETRATUA.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordenberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com
Aldizkariako koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com
Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com
Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbietta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Olatz Rezola, Amaia Zumeta.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

LARUNBATEAN, ELKARTASUN EGUNA _____ 5. OR.

50 URTEZ, AGINAGAKO ORGANO-JOLE _____ 6. OR.

ATEZ ATEKO BILKETAZ SOLASEAN _____ 8. OR.

EUSKARAZKO PRODUKTUEN KATALOGOA _____ 12. OR.




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

ALIPROX

Kale Nagusia 10
☎ 943 361 182
USURBIL

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
☎ 943 370 008

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozotegia

LABE-GOXO

CLIMATA-T
klimatizazio orokorra

☎ 687 858 390
climata_t@yahoo.es



UNAI AGIRRE

Krisia?

Krisia. Edozertarako balio duen hitza. Edozertarako baino, langileria gehiago estutzeko bereziki. Urteetan, mozkinak jaso eta haien artean banatzen ibili diren enpresa gizon horiek, langileok etekinen usaina ere dastatu gabe, orain kezkatuta daude, ez dutelako hainbeste irabaziko. Denbora luzean enpresak deskapitalizatzen dirua eraman duten horiek ez dute ezertxo ere jarri behar orain. Orain da langileon garaia, enpresa handien mesedetan diru publikoa jartzeko garaia. Ongizate estatua etorri da, baina ez gizarte ongizatea dakarrena, kapital ongizatea baizik. Eta espekulazioaren mesedetan urteetan aberastutako eraikuntza enpresa eta banketxeak, orain lagundu behar.

Dirua zegoenean, diru publikoa haientzat, ekonomia mugitzen zen eta. Dirurik ez dagoenean, diru publikoa haientzat, ekonomia mugitzeko. Orain dirurik ez dagoela, laguntza gehiago Muskizen Koke planta egiteko, inbertsioa egin behar Jaizkibelgo "eko-porturako". Laster Zubietako

eko-errauskailua deitzen hasiko diren horretarako ere 40.000 milioi pezeta gastatzen hasteko bero dituzte poltsikoak, gureak noski. Eta jakinda ezingo dutela bukatu. Espainiar armadari behintzat ez zaio dirurik falta Bardeetako ingurune naturala bonbardatzen jarraitzeko.

Bitartean, argindarra %31 igo nahi digute, Iberdrolak urteko lehen hiruhilekoan mozkinak hirukoiztea bakarrik lortu duelako, 1204 milioitara iritsita. Krisia egon bada, bai, baina ez da gurea, guri bakarrik ordainarazi digute. Zenbat kostatu ote da Espainiako tardofrankismoaren Erregea banda enpresarial batek ekartzea? Sindikatu batek dioen bezala, euren krisia euren kontura.

Batzuetan, iruditzen zait gure ordezkari politikoak enpresa nagusien komertzial direla, gehienetan badakit haien morroi direla. Eta gure borrarero. Eta paper hori jokatu nahi ez duenak, ilegala. Baina Euskal Herria – barkatu, nahastu egin naiz–, Euzkadi aurrera doa. Aurrera bai, baina zein norantzatan?

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregerai

Ika-mika!

Urrunegi?

Urrun esan genezake. Urrunegi agian. Ukusten ditugula gure Gipuzkoako espeteratuak, orokorrean: bai politikoak, bai sozialak. Agintariak kartzelez eta gizarteratze-politikaz aho betean ari diren bitartean, presoek euren eguneroko bizi-iraupenari eutsi behar izaten diote, gogor eutsi ere!

Bai baitakite egungo kartzelak gizarteratzaileak ez baino, sistemaren mendekua gogorarazteko erreminta perfektuak direla. Eta egoera jasangaitza izango dutela muntai honen guztiaren aurrean egunero, orduro... momentu oro.

Gizarteak ba al daki egun Gipuzkoan zenbat preso dugun? Eta zer "gaizkile" mota dugun lurraldeko espetxeen? Euskal herritarrek diren edo atzerritarrek diren?

Egun, Gipuzkoan dugun espetxea guztiz zaharkiturik dagoela nor ez du entzun? Eta, nor ez daki Zubietan egin nahi duten makro-espetxeak 1.000 (!) presotik gora hartzeko edukiera izango duela? Zeintzuk dira benetan Gipuzkoaren "espetxe beharrak"? Ba al da espetxe politika egokirik? Zergatik daude buruko gaixotasunak dituzten pertsonak kartzelan? Edo, zuzena al da kotxe bate-

ra lapurretara sartu dena (huseria bat lapurtzen saiatu dena) kartzelaratzea? Zuzena al da sistemak nahi lukeen bezala pentsatzen, idazten, militatzen ez duen pertsona (ezer egin gabe) espetxean sartzea? Ezinbestekoa ote da kartzela bera? Ez dago ezer egokiagorik? Zergatik ez dituzte sartzen kartzelan gaizkile handiak? Dударik gabe galdera asko egin litezke bidegabekeriaren otarra tamalez oparoa baita.

Ziur gaude guztiok ezagutzen dugula espetxeen egon den gertukoren bat: laguna, herrikoa, familiakoa... Halaber, espetxe barruko benetako funtzionamendua, oro har, "hiritar arruntari" urrun geratzen zaion errealitatea dela esan genezake. Zergatik? Zergatik justiziaren orde, mendekua? Zergatik laguntzen dute instantzia ofizialetatik zigorrerako joera hori? Zergatik segitzen dute kartzela barruan tortura fisiko eta psikologikoak aplikatzen? Zergatik drogaren merkatu beltzak kartzela barruan? Zergatik hiltzen dira hainbeste preso (Langraitz batean, adibidez) sobredosia hartzearen? Zergatik, denak preso badira, politikoei eta sozialei erregimen

zeharo desberdinak aplikatu?

Egun sistemak, "gaizkilea" mendekatzeaz gain, gizarteratik aldentzen duelako, bazterketa soziala bultzatuz automatikoki. Pertsona honen suntsipen morala gauzatuz eta, ausardia pittin batez esan genezake, suizidiora bultzatuz, beste arazorik sor ez diezaion sistemari. Gutxi ote dira kartzela barruan bere buruaz beste egin dutenak?

(...) Makro-espetxearen (eta makro-merkatu beltzaren, makro-suizida taldearen, makro-negozio ilunaren...) aurkako talde-tik, gizarterari galdera hauen guztien erantzunak emateko prestutasun osoa dugu. Baita egungo espetxe sistema salatzen borondate argia ere. Benetako gizarteratze politikak proposatzeko, bultzatzeko, exijitzeko... asmo eta gogoak. Arazoaren muinetik, arazoa bera jorritzeko behararen aldarrikapena egitea, alegia.

Beraz, herritarrok, ea lortzen dugun espetxeen egungo gordintasunaz jabetzea eta pertsonen suntsipenerako pausorik eman ez dadin, alderdi horretatik, oraingoz.

Makroespetxearen Aurkako Taldea

Elkartasun Eguna izango da larunbatekoa

Elkar ezagutza eta elkartasuna bultzatu nahi ditu, herrian sortu berri den Usurbilgo Elkartasun Taldeak. Elkartasun Astea antolatu du egunotarako. Munduko dantza, musika, joko erakustaldi eta gastronomiarekin amaituko da. Larunbatean ospatzekoa den Elkartasun Egunarekin.

Munduko errealitate desberdinak uste baino gertuago izan arren, ez ditugu ezagutzen. Horregatik, Usurbilgo Elkartasun Taldeak, Elkartasun Astea antolatu du. Hitzaldi eta film emanaldiarekin batera, amaierarako gorde dute ekitaldi potoloena; larunbat honetan, azaroaren 29an goizean zehar

pilotalekuan ospatuko den Elkartasun Eguna.

Munduko musika eta dantza emanaldien eskenatokian bihurtuko da pilotalekua. Gastronomiak ere bere tartea izango du. Hala, Usurbilen bizi diren baina sorterriz munduko beste txoko batzuetakoak diren herritarrek euren produktuak prestatuko dituzte. Protagonista hutsak ez beraz, zuzeneko parte hartzaileak izango dira.

Cricketen iaioak diren pakistandarrek bezala. Herritar askorentzat jada ezagunak izango dira. Nahi duenak joko horretan trebatu daiteke.

Gainera, hainbat elkarrek euren postuak jarriko dituzte. Usurbil, munduko kulturen topagunean bihurtuko da.



BESTE HERRIETAKO ERREALITATEA EZAGUTZEKO AUKERA IZANGO DA.


“Querida Bamako”, etorkin askoren bidaia kontatzen duen filma Sutegin

Zenbaezina da Europara ailegatzeko hainbat etorkinek egindako bidaia latza. Batzuk ailegatu dira, besteak zoritxarrez bidean geratu dira. Bidaia gordin hori erretratatzeko du “Querida Bamako” filmak.

Burkina Fason pobrezia egoeran bizi den gaztea dugu Moussa. Ondorioz, beste askok bezala, senitartekoak lagundu asmoz, Europarako bidea hartzeko asmoa izango du. Batere samurra ez den erabakia. Familia agurtu eta bidaiari ekingo dio. Europarako bidearen gorabeherak biltzen ditu fikziozko drama lanak.

Omer Oke eta Txarli Llorentek iaz grabatutako film dokumentala da. Donostiako Zinemaldian Ibaia saria jaso zuen. Lanean parte hartzen duten aktoreak Djedje Apali eta Esther Gonzalez Valles dira.

Ostiral honetan, azaroak 28 ikusi ahal izango da filma Sutegiko audito-



IAZ, FILM HONEK “IBAIA” SARIA JASO ZUEN ZINEMALDIAN.

rioan. Gaueko 22:00etik aurrera. Sarrera doan.

Elkartasun Astea

Azaroak 28, ostirala
FILM BATEN PROIEKZIOA
22:00 “Querida Bamako” pelikula Sutegin. Sarrera doan.

Azaroak 29 larunbata ELKARTASUN EGUNA

Goizean, frontoian:

-Jokoak: cricket-a, erakustaldia eta parte hartzea.

-Munduko dantzak eta janari dastaketa: Kuba, Sahara, Nikaragua, Kamerun, Ekuador, Kolonia, Bulgaria, Dominikar Errepublika, Palestina, Pakistan, Andaluzia eta Euskal Herria.

-Hainbat elkareren postuak: Mundubat, Herriak Elkar Lanean, Mugarik gabe, Asociación Esperanza Latina eta Bidezko Merkataritza.

Antolatzailea: Usurbilgo Elkartasun Taldea.

Laguntzaileak: Mundubat eta Udala.

Bittoriano Pikabea, Aginagako organista 50 urtez

“Aurrera jarraitzeko asmoa dut”

Eskola garaitik musikarako sena izan du. Etxean ere solfeoko liburuak gordeta ditu. Aginagako eliza izan ohi du bere ohol-tza. Eta bere eskura, esanahi handiko musika instrumentua; organoa. Pasa den larunbatean, azaroak 22, Santa Zezili, musikarien eguna zen. Baina irteera bat tarteko, asteburu honetan ospatuko du. Musikaria baita eta urteurren berezia ospatuko du. Ez baitu marka makala hautsi; Aginagako elizan organista lanean, 50 urte bete ditu alajaina. Eta zeregin horretan lanean jarraitzeko gogoz dago, etorkizuneko errelebo bila ibili arren. Bittoriano Pikabeari, Aginagako organo joleari buruz ari gara.

NOAUA! Azaroak 22, Santa Zezili, musikarien eguna. Baita zeurea ere?

Bittoriano Pikabea. Ospatzen dugu. Ahal denean, bere egunean. Baina aurretan irteera izanik, ospakizuna atzeratu dugu hilaren 28ra arte. Abesbatzako hamabost lagun jator elkartean bildu eta afaria egiten dugu.

N. Aurten ospakizun bikoitza gainera; egunagatik eta organista gisa 50 urte bete berri dituzulako?

B. P. Garai batean ez nuen halakorik pentsatuko. 50 urte maiatzean bete nituen. Ez da sinistekoa, ezta pentsatu ere. Garai batean esan bazidaten... Aurrera jarraitzeko asmoa dut.

N. Uzteko asmorik ez. Odolean daramazuz?

B. P. Behin barneratu nuen, kostata. Lehen urteak gogorrak izan ziren. Dena nagia zen, behatzak, teklatura. Orain ere on horietakoa ez naiz, baina gaur egun lotsarik gabe, modu ireki eta naturalean ateratzen zait. Talde oso ona dugu. Lehen, garai batean, jendea gaizki ohi-tuta zegoen. Lehengo organistarekin,



“SANTA ZEZILI EGUNA HILAREN 28AN OSPATUKO DUGU; ABESBATZAKO HAINBAT LAGUN ELKARTEAN BILDU ETA AFARIA EGITEN DUGU”.

organoa jo eta abesten bera hasten zen eta gero, herriak jarraitzen zion. Ni hasi berritan, organoa jota kantari ez nintzen hasten. Jendeak lagundu baino barre eta iseka gehiago egiten zuen. Lehen bi urteak oso gogorrak izan ziren. Gaur egun ez dago halako arazorik. Zuzendaria ere oso ona dugu, Javier

Pikabea. Musikaria da. Organoari tonua ematerako, bera abiatu eta denek jarraitzen diote.

N. Duela 50 urteko maiatza. Nork irakatsita ekin zenion organoa jotzeari?

B. P. 1956. urte inguruan, apaiz eta musikaria etorri zen. Eliza Zaharrean

“Oso gustukoak ditut euskal kantak”

ospatzen ziren mezak. Abesbatza eta eliza bera zaharkitua zeudela zioten. Organistak ere urte asko egin zituela zioen beste batek. Hor zerbait egin beharra zegoela aipatzen zuten. Orduan, apaiza gaztediarekin lanean hasi zen. Lanerako gogo handiz etorri zen Antonio Jauregi. Gazteak bildu eta musika irakasten hasi zen. Berak ekarritako solfeoko liburuak, mila aldiz erre-pasatuak nituen Usurbilgo eskolan. Hanka sartze pare bat egin ostean, apaizak musikari buruz zerbait ba ote nekien galdetu zidan. Berak ekarritako materia-la erre-pasatua nuela erantzun nion. Garai hartan, geure aitak abesbatzan parte hartzen zuen. Hark esan zidan, ni aukeratu baninduen zerbaitegatik izango zela. Apaizarekin eta orduko organo jole Agustin Furundarenarekin segituan hasi nintzen. Oso gizon ona zen. Lotsa kentzeko hasi nintzen. Igandetean goizeko zazpietan mezetan, jarraian goizeko mezan, orduko organistaren ondoan ikasten joan nintzen.

N. Ekitaldi asko ospatuko zen Aginagako elizan. Lekuko zuzena izan zara?



BITTORIANOREN ESANETAN, “ABESTIAK ASMATZEN ARTISTA DA JAVIER PIKABEA”.

B. P. Egun berezietakoak, gotzainak etorritakoan izaten ziren. Organoa jotzen nuela, sei bat etorri izan dira. Hemengoak eta kanpokoak.

N. Musika errepertorioari dagokionez, denetarik joko zenuen. Doinu berezirik?

B. P. Musika errusiarra adibidez.

Bestalde, kantuak euskaraz jarrita ditu, Javier Pikabeak. Abestiak asmatzen artista da. Oso gustukoak ditut, euskal kantak.

N. Baten bat bereiziki?

B. P. Denak ditut gustukoak. Apartatzekorik ez dut. Denak politak dira.

“Oso ahots ederrekoak dira abesbatzako kideak”

NOAUA! Organista batentzat apaiza eta abesbatzarekin ondo moldatzea ezinbestekoa izango da?

Bittorioano Pikabea. Gaur egun, abesbatzarekin ondo eraman beharra dago. Apaiz batzuk ez zuten belarririk eta beste batzuk gehiegi, Aranaldek bezala. Gaur egungoa, Horazio zoragarria da, oso ahots polita eta belarri ona du.

N. Elkarlanak guztia bideratzen baitu?

B. P. Gozagarria da. Dena errazten

du, lagundu egiten du. Eta harro sentitzen zara. Oso ahots ederrekoak dira abesbatzako kideak. Oso ondo abesten dute. Haiek kantari hastean, herri guztia kantari hasten da. Poza ematen du, orain ez du uzteko gogorik ematen.

N. Aurrera jarraitzeko asmoa duzu organista bezala, baina izango al da erreleborik?

B. P. Hemen batere ez, nik dakitenik behintzat. Inor egongo balitz, gus-tura lagunduko nioke. Baina garurko

gazteak, ez zait iruditzen. Lotura bat da. Nahi bai, baina zaila da. Ez dut uste gaur egun jendeak halako loturik hartu nahi duenik. Baina, nahi ez duzula ere, kezkatu egiten zara.

N. Organoak zer berezitasun ditu?

B. P. Kapera batekoa da, oso ona. Marka frantziarrekoa.

N. Frantziarrak onenak?

B. P. Bai. Elizetako organoetan onenak frantziarrak dira.

Astelehenean aurkeztuko da atez ateko bilketa egiteko proposamena

Herritarrek egin dituzten ekarpenekin osatu da udal proposamena

Atez ateko bilketa sistema aurkeztu eta herritarren ekarpenak biltzeko antolatutako bi bilera errondatan guztira 938 herritar bildu ziren. Parte hartze prozesuak izandako harrerarekin pozik da udal gobernu taldea. Baina prestakizun lanak ez dira hemen amaitzen. Azken asteotan herritarrekin egindako ekarpenak jasota, dokumentu bat prestatzen ari dira. Datorren astelehenean, abenduaren 1ean aurkeztuko dute Sutegin 18:30ean. Atez atekoa, otsaila amaitzerako martxan jartzea aurreikusten da.

NOAUA! Zer nolako balorazioa egin liteke bi bilera errondek izan duten harreraren inguruan?

Xabier Mikel Errekondo. Argi dago hiri hondakinen arazoa herritar guztioi zegokigula, eta ahalik eta herritar gehienengana iritsi nahi genuela. Horregatik prozesu parte hartzailea planteatu zen, eta noski, gure kezka benetan lortuko ote genuen zen. Herritarren erantzuna ikusita, auzoka eta sektoreka antolatutako bi bilera errondekin oso gustura gaude. Jendea jakiteko eta erantzuteko gogoz agertu da. Egoki eta hobekien nola erantzungo zuen kezkatuta eta zalantzak argitu nahian. Jendeak ulertu du denoi dago-kigun kontua dela hondakinen gaiari erantzutea eta erantzuteko modurik egokiena zein den asmatzen, ahalegin horretan buru belarri jarri da. Atez ateko bilketaren alde egin du. Argi eta garbi beraz, gure aldetik zorion zabal bat herritargo guztiari egin duen ekarpenagatik, jaso baititugu bileratan azaldutako iradokizun eta kezkak. Horretan zetzan, proiektu hori guztia jendearen beharretara egokitzten joatean.

N. Herritarrek zalantza eta galdera asko planteatu dituzte. Gehien errepikatutakoak zeintzuk dira?

X. M. E. Batez ere, jendeak kezka horietan sistema berriaren nolakotasun



ASTELEHENEAN SUTEGIN EGINGO DEN AURKEZPENEAN, ATEZ ATEKO BILKETA NOLA EGIN NAHI DEN AZALDUKO DA.

hori agertu du; nola egin ondo. Galdera nagusien artean agertu dira; ontzi bakoitzean zer gai sartu behar den, sukaldean prestatutakoa organiko bezala jasoko ote den...

HERRITARREN EKARPENAK

Hasieran gauez jasoko zela bazirudien ere, prozesu honen ondorioz zaborra egunez jasotzea proposatu da

Eztabaida interesgarria egon da bilketa egunez edo gauez egitearen inguruan. Bakoitzak bere egoeratik aztertu du aukerarik egokiena. Hasieran gauez jasoko zela bazirudien ere, azkenean prozesu honen ondorioz, egunez jasotzea nahiago da. 6:30-8:30ak artean atera beharko du ontzia usurbildarrak, jartzen den tokira.

N. Sistema berriaren diseinu lana zer puntutan dago?

X. M. E. Herritarren ekarpenak jaso eta hiri hondakinen sistema berri honetan

elementu guztiak txertatzen saiatzen ari gara. Azken proposamena, datorren asteleheneko bileran aurkeztuko dugu. Ez dago ehuneko ehunean zehaztua, oraindik egongo da zer lotua. Proposamenean azalduko da nondik nora planteatzen den atez ateko bilketa, eremu bakoitzean. Jarraipen batzordearen osaketari buruz hitz egingo da. Oso zabala suertatu da, zorionekoa da hainbeste usurbildarrek ingurunearekin lotuta dagoen gai honetan buru belarri sartzeko prestutasuna agertu izana. Hemendik aurrera bere papera garrantzitsua izango da.

N. Eman beharreko hurrengo pausok zeintzuk izango dira?

X. M. E. Zubietaren kasua hor dago. Usurbilen eta Donostian erroldatutakoak daude. Zubietako Herri Batzarrarekin eta zubietarrekin bat egingez; Donostian edo Usurbilen erroldatua egon, izan dadila zubietarra tasa, zerbitzu eta tratamendu bera jasoko duena. Jada bildu gara, Zubietako Herri Batzarra eta Udala, Donostiako Udalarekin. Hasiera batean, arazo berezirik ez dago. Badirudi aurrera

“Otsailean jarri nahi genuke martxan”

atera daitekeela baina luzapenetan sar gaitzkeela ikusten dugu. Bestalde, Foru Aldunditik bizkar ematen zaigu. Atez ateko bilketarako laguntzarik emateko asmorik ez dute, nahiz gero sinisten dutela esan eta ondo ateratzen zaigun desio izan. Sistema berria, otsaila bukararako martxan jarri nahi genuke. Lehenago ez, oraindik gelditzen diren lanketengatik; komertzioekin, landa eremukoekin, ikasleekin, biltzaileak prestatu, kamioia erosi... Hori guztia, komunikazio kanpainak lagunduta. Egiten den lanketa baliagarria izatea nahi da, atzetik etorriko diren gainerako herrietan; Lasarte-Orian, Hernanin edota Oiartzunen. Azken proposamena aurkeztu ostetik aurrera, jendea prest egon dadila, hasieran komertzio eta landa eremukoekin hasiko gara.

N. Herritarren zalantzak argitzeko web orriak, telefono zenbakiak eta bulegoak zer moduzko martxa daramate?

X. M. E. Sutegiko informazio aretoan

persona bat dago, telefono zenbakia eta web orria martxan daude. Sozietate anonimo bat sortzen ari gara, hiri hondakinaren kontu guztiak eramango dituen. Horri erantsi behar diogu, giza baliabide ikaragarria den udal langileria. Prestatzen ari gara, herritargoa informazio bila datorrenean behar bezala bideratzeko.

N. Sarri aipatu izan duzuen bezala, giltzarria herritarrak izango dira.

X. M. E. Sistema guztietan herritargoa giltzarria izan eta bere ekarpena ezinbestekoa da. Herritarrek ondo erantzun, guztion artean asmatu eta emaitzak benetan onak izango direla ziur gaude. Egun %20 birziklatzen ari gara. Horri buelta ematea lortu eta %80 birziklatzera iritsi nahi dugu. Usurbilgo osasun eta ingurune eder honen zaintza giltzarria dela jendeak ulertu du. Horregatik ahalgina egiteko prest gaude. Inguruko herriek ere hala eginik, jarri nahi diguten munstro edo erraustegi hori jartzeak zentzurik ez du izango.

Proposamenaren aurkezpena, Sutegin

Abenduak 1 astelehena, 18:30ean, Sutegin. Landuko diren gaiak:

- Atez ateko Usurbilgo mapa; eremuka eta sektoreka egingo den bilketa.
- Egutegia; egun bakoitzean zer jaso.
- Tasak; hobariak.
- Jarraipen Batzordearen aurkezpena.
- Zubietako Garbitxikia.

Informazio gehiago: Sutegin, erakusketa aretoko bulegoan.

Web orria: www.usurbil.net/atezate

Telefono zbkia: 900 776 776 (doakoa)

Urbilekin hitzarmena

Foru Aldundiak hitzarmena sinatu du Urbilekin, urtean sortzen diren hondakinak %11 murrizteko. Mondragon Unibertsitatearen laguntzaz, Urbilen sortzen diren hondakinen azterketa egingo dute. Gero, hondakinak gutxitzeko neurriak ezarriko dituzte, eta eraginkorrak diren aztertuko dute.

Margotu egunak

UDALAREN PROPOSAMENAREN AURKEZPENA

Astelehenean, 18:30ean, Sutegi Kultur Etxean

Usurbil osasuna atez ate

www.usurbil.net/atezate 900 776 776

Usurbilgo Udala

Ikasturte berria martxan da AEKn, baina matrikulazioak zabalik jarraitzen du

AEK-Etumeta euskaltegiak abian du 2008-09 ikasturtea. Orain artean, 29 ikasle matrikulatu eta lau talde osatu dira. Iaztik hona parte hartzeak gorantz egin du. Ikasturtea hasi da jada, baina matrikulazioak datozen hilabeteetan zehar zabalik jarraituko du. Euskaltegiko arduradun Olatz Urdanpilletak euskalduntzeko beharrezko premisa zein den azpimarratzen du; euskara ahotan hartzea.

NOAUA! Zer moduz joan da matrikulazio kanpaina?

Olatz Urdanpilleta. Ikasleen aldetik, ikasturte hasiera izateko betiko antzera joan da. Baina taldeen aldetik eta ordu aldetik igoera eman da. Goizez talde bat dago, 330 bat ordu egingo dituenak ikasturte honetan, seigarren urrats ingurukoak. Arratsaldean, 18:00-20:00ak bitarte, alfabetatzeko taldea. 20:00-22:00ak bitarte berriz, bi talde daude. Tarte horretan igoera eman da, talde bat gehiago osatu baita; bat lehen urratsekoa, bestea seigarren urrats ingurukoa. Aurten, Usurbilen EGA taldea faltatu izan da. Iaz, berandu sortu zen talde hori. Aurten ez dugu aurreikusten.

OLATZ URDANPILLETA

“Animatuta dagoenak, zenbat eta lehenago hasi orduan eta gehiago aprobetxatuko du urtea”

N. Beraz, hazkuntza izan da?

O. U. Lau talde dira, 29 ikasle daude matrikulatuta. Gainera, beti ikasturtean zehar, taldeak indartzen doaz. Alfabetatzekoa da talde handiena. Matrikula irekia dagoenez, aukera dago nahi denean euskaltegira etortzeko. Animatuta dagoenak, zenbat eta lehenago hasi orduan eta gehiago aprobetxatuko du urtea.



LAU TALDE OSATU DIRA. ALFABETATZEKO DA HANDIENA. MATRIKULAZIOA IREKIA DENEZ, AUKERA DAGO NAHI DENEAN EUSKALTEGIAN IZENA EMATEKO.

N. Matrikulazio kanpaina irailean egin zenuten, baina aipatu bezala izena emateak zabalik jarraitzen du?

O. U. Gabonen ostean beste kanpaina txiki bat egingo dugu. Jendeak beti asmo berriekin hasten baitu urte berria.

N. Ez dago gaizki asmo horien artean euskara egotea?

O. U. Ez eta nabari da gainera. Lehen urrian eta otsailean egiten ginen matrikulazio kanpainak. Baina orain urte hasierakoa hilabete lehenago egiten dugu, urtarrila ere baliatzeko.

N. Aurtengorako ba al da berrikuntzarik, eskaintzari dagokionean?

O. U. Duela bi urte, Udalarekin hitzartuta, zerbitzu osagarria delakoa eskaintzen hasi ginen. Udalak diruz laguntzen duen zerbitzu bat da. Talde gutxi daudenez Usurbilen, askotan gertatzen zaiguna da ikasleak txandaka etortzen direla eta astebetean etor ezin badaitezke, asko galtzen dutela. Etxeko lanak egiteko aukera ematen zaie. Eskaintza oso ondo baliatu da. Hasierako helburua, astean ordubeteko gramatika eta mintza saioak egitea zen. Horrela planteatuta ordea, ikasle

batzuk errefortzu modura ere baliatu izan dute. Taldeak oso handiak ez direnez, aukera hori eman zaie. Baina lehenatasuna beti txandakako ikasleek dute.

N. Lehenatsunak aipatuta, zeintzuk dira ikasleenak?

O. U. Denetik dago. Hasierako urratsetan, gehienbat seme-alabak dituztelako izaten da, edo lanean ari direlako, inguru euskalduna izanik berak ere hor murgildu nahi dutelako... Bada beste ikasle tipologia bat; azterketak gainditu nahi dituenak. Askotan haien helburua, ez da euskara ikastea, azterketa gainditzea baizik. Oso zilegi da. Baina hor arrisku bat dago, azterketa gainditu arren, gero euskara ez erabiltzearena. Azterketa gainditu edo ez, garrantzitsuena euskara ikasi eta batez ere, erabiltzea da. Euskaraz hitz egin behar dugu, irakurri, idatzi. Helburu denak dira oso onak, baina beti erabilera da garrantzitsuena, orduan euskalduneko baikara. Azterketa gainditzeak ez gaitu euskaldunagoak egingo, titulu bat emango digu.

N. Egunerokoak du garrantzia.

O. U. Hizkuntza bat ikasteaz sekula ez da amaitzen. EGA ateratzen duenak ere oraindik ikasteko aukera du. Ni oraindik ikasten ari naiz.

N. Euskararen egungo erabilerari dagokionez, zer sumatzen duzu euskaltegitik?

O. U. Usurbil handitzen ari da. Bertako jendea dago, kanpoko jende euskalduna eta erdalduna. Oso herri euskalduna izan eta euskara askok jakin arren, nahasketa handia ematen da. Euskaraz asko hitz egiten da, baina erdara asko nahastuta. Beste leku batzuetan, euskaraz hitz egiten denean euskaraz hitz egiten da, erdaraz aldiz gehiagotan. Baina Usurbilgo haurren artean adibidez euskara asko hitz egiten da. Alde horretatik, etorkizuna oso argi ikusten da.

“Zailena ohiturak aldatzea izaten da”

NOAUA! Tartean, izango dituzue euskara galdu eta berreskuratu nahi-ko duten ikasleak?

Olatz Urdanpilleta. Iaz izan genituen eta aurten ere bai. Harritu egiten dira. Ez dutela hitz egiten diote, baina hitz egiten hastean, kristoren maila dute. Baina ez dira horretaz jabetzen. Ez erabiltzearen eragina da hori. 30-50 urte bitartekoak, heziketa kontuengatik eta arrazoi desberdinengatik berreskuratu dutenak daude; baita EGA eskuratutakoak ere. Helburua, beti bakoitzaren esku dago. Motorra piztea da kontua, baina piztuta mantentzea norbere esku dago. Zailena ohiturak aldatzea da; lagun, bikote artekoak... Alda liteke, eta gure ondorengoek beste modu batera joka dezakete. Horregatik, animo!

Apirilaren 2an igaroko da Usurbildik Korrikaren 16. edizioa

Ongi etorri, euskaraz bizi nahi dugunon herrira, aldarria ezaguna egingo zaigu datozen aste eta hilabeteetan. Lehenago baita, baina bereziki martxoaren 26tik apirilaren 5era, Tuteratik Gasteizera. Usurbildik apirilaren 2an igaroko da, Korrika 16.

2.000 kilometrotik gora, etenik gabe, hamaika egunez lau haizeetara euskararen aldeko aldarrikapena Euskal Herri osora zabaltzen. Badator berriz ere, hamaseigarrenez, Korrika. Aurreko edizioan emakumeak izan baziren, oraingoa etorkinak omendu nahi dituzte, lan edo bizimodu berri baten bila Euskal Herrira etorri eta euskara ikasita, bertako hizkuntzari egin dioten ekarpenengatik. Antolatzaileek haien jarrera eskertu eta hemen jaio arren, euskara ez dakitenez eredu garri izatea nahi dute. Berreskuratu beharreko hizkuntzaren, euskararen aldeko mezua ere helarazi nahi da eta jardun horretan aritzen jarraitzeko ongi etorria eman, administrazioari edota herritarrei.

Beste Korrikak

Nahi duenak Korrika Laguntzaile izan daiteke laster, AEK-ra edota horretarako aukera emango duten beste hainbat guneetara joanda. 12 euroren truke, laguntzaile pina, hainbat saltokietan beharpenak izateko txartela eta aipatu denden zerrenda biltzen duen katalogoa eskura daitezke. Beharpenak baita Korrika Kulturalari lotuta antolatuko diren ekintzetarako ere. Korrika 16 gerturatzeko doan neurrian, hainbat kultur



KORRIKA 16 BAINO LEHEN, KORRIKA LAGUNTZAILE KANPAINA HASIKO DA.

ekitaldiz gozatzeko aukera izango baita.

NOAUA! Korrika 16-ko prestaketa lanetan murgilduta egongo zarete honez gero?

Olatz Urdanpilleta. Orain Korrika Laguntzaile kanpaina hasiko da. AEK-k bizi irauteko oraindik gizartearen laguntza moral eta ekonomikoa behar du eta.

N. Leloa, ongi etorria?

O.U. “Ongi etorri” leloa euskararen mundura, etorkinei zuzendua dago. Aurtengoa, etorkinei begirako Korrika da. Haiek omenduko dira. Ibilbidea zehaztua dago, apirilaren 2an igaroko da Usurbildik. Nafarroatik Gipuzkoan barrena, Lasarte-Oriatik Usurbila iritsiko da. Eta gero, Zarautzetik Bizkaia aldera joko du.

N. Zergatik etorkinak?

O.U. Askotan eredu dira. Zer ahalegin egiten duten batzuek, gure artera etorri eta lehenbiziko gauza, euskara ikasten jarrita. Hemen bizi den jende asko erdaraz eroso bizi denean.

Ikasle eta langabetuentzat dirulaguntzak

IKASLEENTZAT DIRU-LAGUNTZAK:
Euskara ikasi nahi duenak Udalaren laguntza jaso dezake. Aurten, 29 ikasle baliatu dira diru laguntzetaz, iaz baino 14 gehiago, ekainean zehar eskaerak aurkezteko zabaldu

zen denbora tartean. Hau da gaur egun dagoen laguntza eskaintza:
-Euskara ikasleek: %80.
-12 urtetik beherako seme-alabak dituzten gurasoek: matrikula-kostuaren %100a.

UEUKO IKASLEENTZAT:
Matrikula-kostuaren %60a jasoko dute.

LANGABETUENTZAT:
Matrikula-kostuaren %100a.

Euskarazko Produktuen Katalogoa, lagungarri izateko banatu den gida praktikoa

Datozen eguberrietan, 16 urte arteko haur eta gaztetxoei zer oparitu ez dakienak, ez deza-la burua hautsi. Beste behin, eskuragarri izango baita euskarazko produktuen katalogoa, adin tarte desberdinei zuzendutako jolas, irakurgai edota musikaren alorreko produktu bildumaren informazioarekin. Gida honen laguntzarekin, eta prezio berean, hezigarria den produktua euskaraz eskuratu ahal izango da. Katalogoak aste honetan ikastetxeetan banatzekoak dira.

Jolastu, ikasi edota irakurri, baina euskaraz. Hori da Euskal Herri osoko 111 udal eta Mankomunitateetako euskara zerbitzuen helburu nagusia. Baita, merkatuko euskarazko produktu eskaintza ezagutarazi eta eskaera indartzea ere. Horregatik, beste behin, euskarazko produktuen katalogoa prestatu dute. Iaz baino 7.000 ale gehiago, guztira Euskal Herri osoan 267.000 katalogo inguru eskuragarri izango dira. Horietatik 850 Usurbilen banatzeko asmoa dago, ikastetxeen bidez; Udarregi ikastolan, Zubietako Eskola Txikian eta Aginagako Herri Ikastetxean.

PRODUKTUAK, ESKURA

“850 katalogo banatuko dira aste honetan Udarregin, Zubietako Eskola Txikian eta Aginagako Herri Ikastetxean”

317 produkturen inguruko informazioa biltzen du hamaikagarren edizioa ailegatu den katalogoak, bere irudi, izenburu, salneurri edota argitaletxeari lotutako datuekin. Gehienez, lan berriak iragartzen dira, aurten argitaratu edo merkaturatu direnak; musika, liburuak, aldizkariak, filmak, joko eta jostailuak, DVD eta informatika produktuak, komikiak eta gurasoentzako produktuak. Guztira zortzi ataletan sailkatuta, kasu batzuetan, baita adin tarteka ere.

Sarean ere ikusgai egongo da honako helbidean: www.katalogoa.org web orrialdean. Bertan, argitaletxeetatik jasotako produktu guztien erreferentziak biltzen dira, ia 400. Web orrialde horretatik, katalogoa PDF formatuan ere jaitsi daiteke.

Modu batean edo bestean, gidan bertan iragartzen diren produktuak merkaturatu dira jada. Beraz, dagokien saltokietan aurkituko ditugu.

Euskal Herri mailako elkarlana

Katalogoa banatzen den eremu geografikoa zabaltzen doa urtez urte. Geroz eta ale gehiago argitaratzen dira eta hazten doa baita, bertan iragartzen den produktu kopurua. Goranzko joera garbia erakusten du baita katalogorako bultzatu den parte hartzeak. Euskara normalizatze lanetan, Euskal Herri mailako teknikariak elkarlanerako biltzen dituen egitasmo bakarretakoa da.



GERO ETA HERRI GEHIAGOTAN
BANATZEN DA EUSKARAZKO
PRODUKTUEN KATALOGOA.

“Kantu eta Jolas” ikastaroa eskainiko da Udarregi ikastolan

Euskararen familia bidezko transmisioaren garrantziaz jabetuta, Usurbilgo udalak Buruntzaldeko udalekin elkarlanean eta HABE eta HPSrekin lankidetzan, 2008/9 ikasturtean familia bidezko transmisioa indartzeko plana laugarren ikasturtez jarri du abian.

Plan honekin bat dator “Kantu eta Jolas” ikastaroa, Udarregin abenduan eskainiko dena.

Umearentzako oso erakargarria da musikaz eta kantuz hornitzen diren jolasak. Jolasean eta kantuan ari den bitartean, ohartu gabe ikasiko du umeak. Horregatik, helduek gehiagotan abestu beharko lukete umeekin.

“Kantu eta Jolas” ikastaroaren bitartez, gurasoek aukera ederra dute begibistan. Ikastaroa Udarregi ikastolan egingo da, abenduan, baina izena emateko epea aste honetan amaituko da.

“Kantu eta Jolas”

Nori zuzendua: Udarregi ikastolako HH3 eta HH4ko gurasoei.

Noiz: abenduaren 3, 10 eta 17an.

Ordutegia: 14:45etik 16:15era.

Non: Udarregi Ikastola, Agerialden.

Lehenengo bi saioak gurasoentzat bakarrik, hirugarrena haur eta gurasoentzat.

Izena emateko epea: azaroaren 27a (tutoreari eman izen-emate orria).

Ikastaroa emango duena: Urtxintxa Aisialdi Eskola.

Artzabal, dagoeneko zabalik

Abenduaren 1etik aurrera, menuak emango dituzte bertan

Artzabal baserria zahar egoitza berrian bilakatu da azkenean. Inaugurazio ofiziala las-ter egingo da baina astelehen arratsaldean, Gure Pakeako bazkideek, Artzabal baserria barrutik ezagutzeko aukera izan zuten.

Beheko solairuak, nagusiki, taberna eta jatetxea jasoko ditu. Abenduaren 1etik aurrera, eguneko menuak emango dituzte bertan.

Lehen solairuan, erabilera anitzeko gela handi bat jarri dute. Baita administrazioarako gela txiki bat eta ilea-paindegia ere, besteak beste.

Bigarren eta azken solairuan, egongela ederra. Ganbara irekia da eta telebista, sofa, aulki eta mahaiez hornituta dago. Gora eta behera ibiltzeko igogailua ere badu zahar egoitza berriak.



ASTELEHENEAN, GURE PAKEA ZAHAR EGOITZAKO BAZKIDEEK ARTZABAL BASERRIA EZAGUTZEKO AUKERA IZAN ZUTEN. ONDOREN, LUNCH BAT ESKAINI ZITZAIEN.



ARTZABALGO TABERNA BEHEKO SOLAIRUAN AURKITZEN DA.



LEHEN SOLAIRUAN, ERABILERA ANITZEKO GELA HAU DA NAGUSI.



GANBARAK BISTA EDERRAK DITU; ATSEDEN HARTZEKO TOKI EGOKIA.

Industri eta iragarki
SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA

KAMUJESITEN INPRIMUAKETA

OSU

943 371 954
UDALDEA PDL.35-2-USURBIL

Otar-Goxo
Elkargaiak

Zubiaurrenca, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Zuen
publizitatea
hemen

☎ 943 360 321
publizitatea@noaua.com

www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

txirriStra

KONTSEJUZARRA 13
943 360 466

pintxoak
ogitartekoak
piater konbinatuak **TABERNA**

Igeldoko Lezkarri Abesbatza, larunbat honetan Usurbilgo elizan



Asteburu honetan, Igeldoko Lezkarri abesbatzaren bisita jasoko dugu. Usurbilgo parrokian arituko dira kantuan, larunbat arratsaldean, arratsaldeko 18:30ean.

Usurbilen eskainiko duten kontzertuak bi zati izango ditu.

Lehenbiziko zatian, Euskal Herriko

bost abesti ezagun entzuteko parada izango da: "Goizian", "Biotz badaukat eta" eta "Itsasoa", besteak beste.

Bigarren zatian lau abesti afrikar kantatuko dituzte. Abesti afrikarretan, laguntzaile bezala, Igeldoko perkusio taldea arituko da Lezkarri Abesbatzarekin batera.

Kalejiran, Santa Zeziliren omenez



SANTA ZEZILIA EGUNEKO OSPAKIZUNAK BI EGUNEZ AURRERATU ZITUEN EUSKAL HERRIKO MUSIKA ESKOLEN ELKARTEAK. ZUMARTEKOAK KALEJIRAN IBILI ZIREN LEHEN LEHENIK ETA GERO KONTZERTUA ESKAINI ZUTEN SUTEGIN.

Odol Emaileen Eguna

A benduaren 8a Usurbilgo Odol Emaileen eguna da. Aurtengo ospakizuna bideratu dute dagoeneko. Aurten, Antxeta jatetxean egingo da ospakizuna. Odol Emaileen ordezkariak adituzera eman dutenez, "egun horretan, zendutako odol emaileak gogoratzeaz gain, bazkaltzeko elkartuko gara. Aurten Antxeta Jatetxean izango da otordu lekua".

Txartela, 32 euro

Ospakizunera bertaratu nahi duenak, deitu diezaiola elkarteko ordezkari bati:

Patxi 615 760 458

Agustina 943 363 102

Kattalin 943 362 139

Maite 943 366 040

Bazkarirako txartelak 32 euro balio du. Bertaratu nahi duenak, azaroa bukatu baino lehen eman dezala izena.

Zuberoako ikastolen aldeko otarrak salgai

Bi otar daude aukeran. 36 eurokoan, kilo bateko ardi gazta, 500 gramo ezti-potea, ahate gibelarekin egindako pateia (200 gramo) eta etxeko gaileta pakete bat.

Bigarren otarrean, 47 euroren truke, hauxe aurkituko du erosleak: kilo bateko ardi gazta, ahate gibelarekin egindako pateia (200 gramo), txahalki kontserba piperrakin, berotu eta jateko prest (750 gramo) eta etxeko gaileta pakete bat.

Txiribogan eta Bordatxon

Otarrak eskuratzeko Txiribogan edo Bordatxon jarri diren zerrendetan eman behar da izena. Azaroaren 29ra arteko epea dago.

Abenduaren 13an Amador Granado omenduko dute

Txinako Joko Paraolimpikoetan izan zen Amador Granado. Ez zuen dominarik ekarri baina lan txukuna osatu zuen. Bere ahalegina ez da oharkabean pasa eta bere lagunek omenaldia prestatu diote.

Lehenik bizikletarekin bueltaxka bat. Eta ondoren, Saizar sagardotegian bazkaria. Hau guztia abenduaren 13an izango da. Udalak ere, agerraldia egingo dio egun horretan Amador Granadori.

Bizikleta ibilaldia kiroldegitik abiatuko da, goizeko 9:00etan. Ondoren, udaletxeak agerraldia egingo dio eguerdi partean. Eta azkenik, bazkaria Saizar sagardotegian. Bazkarian parte hartu nahi duenak, izena eman



BIZIKLETA MARTXA ETA BAZKARIA
ANTOLATU DUTE BERE LAGUNEK.

dezala abenduaren 8a baino lehen Laurok dendan. Txartela, 32 euro.

Kiloko perretxikua, Andatzan jaso



Aurreko astean, azaroaren 19an hain zuzen, kilo bateko perretxikua aurkitu zuten Arrospide aita-semeak. Andatza mendian bildu zuten. Euren etxekoek kontatu diguten bezalaxe, "hainbeste euri egiteak

ere badu alde ona".

Antza denez, Arrospide sendikoek odolean daramate perretxikuak biltzeko grina. Azaroaren 19an, ezuste ederra hartu zuten. Zorionak eta, batez ere, on egin!

Kirolariek in solasaldia Udarregi ikastolan

Kirolaren beste alderdi ezezagunak. Herriko hainbat kirolari gai horren inguruan arituko dira hizketan ostegun honetan.

Hitzaldia Udarregi ikastolako erdiko aretoan izango da, arratsaldeko 18:00etan. Kirol munduan eman dituzten urratsak azalduko dituzte herriko kirolariek, tartean profesionalak diren batzuk.

Hitz Aho guraso elkarteak antolatuko duen mahai-inguru hau Joxe Mari Izetak bideratuko du. DBH zikloko 12-16 urteko gazteei zuzenduta dago mahaingurua.

Andatzaren argazki eta bideo lehiaketa

Aste honetan amaituko da Bidaia eta Mendi Irteeren Argazki eta Bideo Lehiaketan parte hartzeko epea.

1.- Lana diapositibetan edo modu digitalean aurkeztu behar dira, eta euskaraz eginak (argazkiak edo bideoa).

2.- Iraupena: gehienez 30 minutu.

3.- Lana aurkezteko azken eguna azaroaren 26a asteazkena zen, Usurbilgo Udal Liburutegian.

4.- Hiru izango dira sariak: 300, 200 eta 100 eurokoak.

E-posta: andatzake@usurbil.com

Pilota partidak

AZAROAK 28 OSTIRALA

Aginagan, 20:00

Eskuz binaka kadeteak 2. maila

USURBIL-AURRERA SAIASZ

(Julen Uli - Imanol Zinkunegi) (Tolosa)

Paleta goma nagusiak 2. maila

OIARPE 2 - IKASBERRI

(I. Huegun-A. Urdanpilleta) (Azpeitia)

Agenda !

Azaroak 27 osteguna

- "Bizitzako lehen urteetan elikadurak duen garrantzia", hitzaldia Sutegin, 17:30ean. 0-3 urteko haurren gurasoei zuzendua.

Azaroak 28 ostirala

- "Querida Bamako" filmaren emaldia, 22:00etan Sutegin.

Azaroak 29 larunbata

- Elkartasun Eguna, goizean frontoian.

- "Ezker Eskuma" antzezlania Sutegin, 22:00etatik aurrera. Sarrerak aldeztatik kiroldegian daude salgai, 5 eurotan. Egunean bertan, takilan, 8 euro.

Abenduak 1 astelehena

- Pello Añorga ipuin kontalaria, 18:00etan udal liburutegian.

- Atez ateko udal proposamenaren aurkezpena Sutegin, 18:30ean.

Abenduak 6 larunbata

- Baztango Nekazaritza Kooperatibara bisitaldia. Irteera goizeko 10:30ean, Alkartasuna kooperatibatik. Izen-ematea: 943 361 114. Bazkaria: 20-25 euro.

Kultur arloko dirulaguntzak

Kultura Batzordetik zera jakinarazi nahi zaie dirulaguntzak eskatu dituztenei: "2008ko kulturako dirulaguntzak direla eta, eskaera egin zutenak ekintzak justifikatzen joan daitezela ahalik eta azkarren".

Eguneko goardiako farmaziak

Azaroak 27, osteguna
Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

Azaroak 28, ostirala
De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

Azaroak 29, larunbata
Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte
Iturralde, Borda Berri 1, Usurbil*

Azaroak 30, igandea
Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

Abenduak 1, astelehena
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Abenduak 2, asteartea
Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte

Abenduak 3, asteazkena
Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

Abenduak 4, osteguna
Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte

Abenduak 5, ostirala
De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

Abenduak 6, larunbata
Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte
Oa, Kontseju Zarra 11, Usurbil*

Abenduak 7, igandea
Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Correa Farmazia (22:00-09:00),
Perkaiztegi kalea, 8 Hernani
Telefono zenbakia: 943 33 60 22
*Usurbilen, soilik eguerdira arte

"Ezker Eskuma", umorezko antzezlania Sutegin

Aizpea Goenagak idatzita eta Ane Gabarainekin batera zuzenduta, larunbat honetan "Ezker Eskuma" antzezlania ikus ahal izango dugu Sutegin. Iñake Irastorza eta Loli Astoreka aktore ezagunak izango dira taula gainera igoko diren aktoreak.

Bi emakume, Rosa eta Sara dira protagonistak, bakoitza bere etxean bizi da, bere munduan, eta beren egunerokotasunak dituen arazoekin borrokan. Biak kontu bakar batek elkartzen ditu, alegia, biak solairu berdinean bizi direla, ezker- eskuma.

Abiapuntua hori bada ere, ez da antzezlan goibela. Aizpea Goenagaren



LOLI ASTOREKA ETA IÑAKE
IRASTORZA, BI AKTORE NAGUSIAK.

hitzetan, "umorarik galdu gabe, baina txiste errazak saihestuz".

Larunbat honetan, 22:00etatik aurrera Sutegin. Sarrerak aldeztatik kiroldegian daude salgai. Egunean bertan takilan.

Datorren astelehenean, Pello Añorga ipuin kontalaria Sutegin

O iartzungo ipuin kontalaria maiz hurbiltzen da udal liburutegira. Datorren astelehenean berriz izango da gure artean; LHko lehen mailako ikasleei zuzendutako saioa eskainiko du arratsaldeko 18:00etatik aurrera. Abenduaren 19an berriz izango da Sutegin, Haur Hezkuntza 3ko ikasleen aurrean.

Azken asteotan albiste izan da Pello Añorga, "Jenio Gaiztoa" (Aizkorri) lanari esker haur eta gazte



PELLO AÑORGAREN SAIDA
18:00ETAN HASIKO DA.

literaturako Euskadi Saria irabazi berri duelako.

ETXEBIZITZA

- Pisu salgai Usurbilen (Txaramunto; 2 urte). 97 m2 - erabilgari. Egongela-sukaldea (35 m2), 3 logela, 2 bainugela, balkoia, arropak esekitzeko toki itxia, garajea, trastelekua eta igogailua. Eguzkitsua. 375.000 euro. 616443507.
- Kaxkoan pisu bat alokatzen dugu, garajea eta trasteroa dauka. Abala eskatuko da. Deitu 18:00tatik 21:00etara 649 261 704 telefono zenbakira.
- Usurbildar gazte bat alokairuan dagoen etxe baten bila, Usurbilen. Tf: 652 750 789.
- Etxe bat alokatu nahiko nuke ahal bada Usurbilen edo inguruan, bakarrik edo konpartitzeko. 620431108.
- Etxebizitza bat alokairuan hartu nahi nuke. Mesedez deitu: 697 807 403.
- Zubietan alokairuan pisu bat hartuko nuke urte osorako. 675709894
- Baserri bat hartuko genuke errentan bi lagunek. 656 703 814.
- Santuenea auzoan hirugarren pisua salgai, guztiz amueblatua, 50m ditu. Gela bakarrekoa, sukaldea, sala eta komuna oso argia da. 161.000 euro. 675709914.
- Zubietan 75 metro karratuko etxebizitza salgai. 2 logela, sala, komun bat, trastero txiki bat eta sukalde handi bat. Kanpokaldera ematen du etxe osoak eta bizilagunentzako aparkalekua dauka. 195.000 euro. 690290981.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Pisu bat salgai Kaxkoan, 3 logela, igogailua, balkoi luzeak eta ganbara dituen. Dena berriua eta amueblatua. 47.000.000 pta. 657 71 13 35.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Usurbilen etxebizitza salgai. Sukaldea, jangela, egongela, bi logela eta komuna. Dena amueblatua eta egoera onean. Agentziarik ez. 600645629
- Etxebizitza salgai. 86m karratu erabilgarriak + 13m karratu balkoi(eguzkitsua), 3 logela, bainua, komuna, kalefazioa, trasteroa eta igogailua. 318.000 euro. Tf: 688670561.
- Apartamentu-duplex rustikoa salgai. Zubietan Elizaren ondoan. 220.000 euro. 678084020.
- Usurbilen alokairuan bizitzeko logela edo pisu baten bila nabil. Bakarrik edo konpartitua. 625706912.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Pisu bat edo etxe bat alokatu nahiko nuke. 650082049.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna, sukaldea, egongela eta trasteroarekin. 685731792.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Bost ateko Nissan Micra daukat salgai. Matrikula

- 4545DNN. 666894283 (Ana).
- Atxegalden 32 metro karratuko garajea alokatzen dut. Garaje edo almatzen moduan ibiltzeko sarre-er egokia. 943373481
- Honda CBF-250.c motorra daukat salgai, 3 urte ditu eta 5500Km, egoera oso onean dago eta garajejan egondakoa da. 657770131.
- 5 ateko Peugeot 306 diesela salgai. Egoera onean, prezio ona (800 euro negoziagarri). 652713312 (Merce).
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. Interesatuak deitu 658716970 telefonora.
- Etxebeste kalean 44 m2-ko lokala alokatzen da. Interesatuak deitu: 943 36 12 19.
- Usurbilen alokairuan hartzeko garaje baten bila gabiltza. Furgoneta bat sartzeko modukoa izan behar du. 647299299.
- Volkswagen California bat daukagu salgai. 92. urtekoa, 2400eko motorra, konpondu berria... 650004264 edo 943243379.
- Citroen Picasso Diesel salgai. 4 urte. 617 24 26 60 (Nere).
- Hiru ateko Honda Civic salgai. Beti garajejan egondakoa. 620625823.
- Citroen Saxo diesela daukat salgai. Matrikula SS-BC da. 656734413 (Marijo).
- BMW 650F motorra daukat salgai. Egoera onean eta garajejan egondakoa. 666988050.
- Galtzaragairan 14 metro karratuko garaje itxi bat daukat salgai. 617972350

LANPOSTUAK

Lan-eskaintzak

- Txiribogan sukaldaria behar da, ostegunetik igandera. 699 451 082 (Arantxa).
- Antxeta jatetxean kamarera behar da, astelehenetik ostiralera lan egiteko.
- Astean bi egunetan etxeko lanak egin eta umea zaintzeko pertsona behar da. 627278907.
- Aginaga sagardotegian zerbitzari bat behar dugu astebukaeratan lan egiteko. 943 366 710.

Lan-eskaerak

- Mekanikari lanak egiteko edo baserriko lanak egiteko prest nago. 690261041
- Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo tabernari lanak egiteko ere prest nago. 608835033
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 608 406 984.
- Usurbilgo neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, portalak garbitzeko... Interesatuak deitu 21:00-23:00era edo bestela kontestagailuan mezua utzi, 943 36 44 69.

Esperientziaduna.

- Neska euskaldun bat behar da Kinkildegian lan egiteko. 609099824 / 943214508.
- Neska bat eskaintzen da, Usurbilen arratsaldez umeak zaintzeko. Interesatuak deitu: 679062726 / 943575788
- Neska bat eskaintzen da, Usurbilen arratsaldez umeak zaintzeko. Interesatuak deitu: 661702708 / 943575788
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko goizeko 7:30etik goizeko 9:30/10:00ak arte. Umeak zaindu edota ikastolara eramateko, astelehenetik ostiralera. 647 742 893.
- Neska gazte esperientziaduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. 661 626 500 // 943 371 348.
- Fisika eta matematikako klase partikularrik emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Baxxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Sukaldaria naiz, goizez egingo nuke lan, Usurbilen bizi naiz. Autoa dut. Esperientzia asko: 669243437
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 679742413.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da, esperientziaduna. 690 784 113.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 608 406 984.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Azaroaren 18an giltzak galdu nituen Eguzkitaldean. 635 701 374.
- Ostegun iluntzean, errealeko jertsea galdu nuen frontoian. Norbaitek bilatu badu, 686969112
- Arrue markako kotxe kapota bat salgai daukagu 250 eurotan. 6-8 hilabete arteko umeentzat egokia. 616586851.
- Yorkshire terrier arrazako txakur bat galdu zaigu. 609 653 440. Itzultzen duena saritua izango da.
- Etxebizitzaren erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173466.
- Bakarkako haur ohe bat salgai koltxo eta guzti. Tamaina: 90 x 1,90. Oso gutxi erabilia eta polita. Interesdunek: 629 730 299.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriein eta urtebeteko behorra. Tf: 626 220925
- Aritz egurrezko aulkia salgai. 943 36 20 49.
- 2. eskuko trikitixa erosiko nuke. 656 76 52 13.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira. Baita bideoak editatu ere. 617 242 660/ zapore@euskalnet.net



Zorionak Manuel eta Albaro! 40 urtetan lagunak izateagatik. Ea horrela jarraitzen dezuen urte askotan.



Zorionak aita txo! Azaroaren 24an zure urtebetetzea izan da. Muxu handi bat eta besarkada bat amatxo, Imanol eta Izaroren partez.



Zorionak Elur! Lau urte berri hauekin txapela buruan eta ibili munduan. Muxu potolo-potoloak maite zaitugunongandik.



Zorionak Alazne eta Nikolas! Alaznek 11n eta Nikolasek 23an egin dituzue urteak. Muxu

handi bat eta zorionak bioi etxeko guztion partez!



Zorionak Oihane! Abenduaren 1ean egingo dituzu 12 urte eta bihotz-bihotzetik opa dizut egun zoriontsu bat izan dezazula eta egun horretako magiak zure ametsak betetzen lagundu zaitzala. Nereak beteak dira dagoeneko, zure aita.



Zorionak Xabat! Egun zoriontsua pasako zenuelakoan, jaso muxu handi bat familiaren partez!

JAIOTZAK

Ibai Marin Anduaga, azaroak 14
Ainhoa Albisu Sarasola, azaroak 14
Irati Manterola Muguruza, azaroak 20

HILDAKOAK

Jose Matxain Alzaga
 Azaroaren 18an hil zen 84 urterekin, Usurbilen





Dieta orekatuan, haragia beharrezko osagai

HARATEGIETAKO SALEROSKETATAN EUSKARA BULTZATZEKO KANPAINA ABIATU DA BURUNTZALDEAN

Orain ez bada, urte hasieran, oporren bueltan... Dieta zaintzea lehentasuneko zeregin bihurtzen da. Halakoetan otorduetatik lehenbizi erretiratzaren diren elikagaien artean, harategietako produktuak egon ohi dira. Dieta orekatu bat izateko aldiz, halakorik egitea beharrezkoa al da? Dirudienez ez. Haragi proteinek geure osasunarentzat onuragarriak baitira. Guztia bezala, tamainan beti ere. Hala dio Lasarte-Oriako Natur Houseko langile eta giza elikaduran aditua den Amaia Camposek.

Dieta orekatutzat zer ulertu behar dugu?

Amaia Campos: Pertsona bakoitzaren osasun egoera hoberena bermatuko duen elikagai guztiak dituen dieta da. Beraz, eguneroko nutrizio eta energia beharrak osatzeko gaitasuna izango du. Dieta orekatu batean, elikagaien kantitate eta kalitateak, garrantzia handia dute. Guretzat dieta orekatu baten gertuko ereduak, "mediterranean dieta" izango litzateke.

IKERLARI ASKOREN IRITZIA

"Haragi gorri zein zuriak, bihotzarentzat ona den dieta baten partaide izan beharko lirateke"

Denetik jan beharra dagoela esaten da. Zergatik daude hainbeste desadostasun gai honen inguruan?

A. C.: Hala da, denetatik jan beharra dago: azken finean ez daude elikagai txarrak ez onak, proportzio kontua besterik ez da. Denetik jan bai, baina bere proportzio justuan. Baina egia esan, dietetika desadostasun eta kontraesan gehien eragiten duen alorra da. Izan ere, talde etniko bakoitzak elikaduraren aurrean dituen jarrera eta elikagaiak, bere ile edo azalaren kolorea bezain ezberdinak izan daitezke. Azken finean, nire ustez, oinarri zientifiko bat duen artean norberak bere konbikzioak defendatzea guztiz legezkoa da. Edozein gaien inguruan sortzen diren iritzi ezberdinek etengabe ikerlan berriak



AMAIA CAMPOSEN USTEZ, "HOBE DA FRIJITUAK SAIHESTEA, BAITA ELIKAGAIEN KOIPE KANTITATEA HANDITZEN DUTEN TEKNIKAK ERE".

bultzatuko dituzte. Beraz, positibotzat hartuko nuke desadostasun egoera hori.

Dena den, etengabeko ikerketen ondorioz, ideia konkretu batean behintzat pentsaera guztiak adostea lortu da: dieta orekatuaren definizioan.

Haragi proteinek ere beraz, beharrezkoak dira ezta?

A. C.: Noski baietz. Haragi proteinek, balio biologiko handiko proteinek kontsideratzen dira, aminoazido esentzial guztiak dituztelako. Aminoazido hauen premiak osatzeko, haragi proteinek jatea beharrezkoa da, organismoak bere kabuz ez baitakizki sintetizatzen kantitate nahikoan eta landarekien proteinekin lan gogorra edukiko dugulako gutxienekotara iristeko. Oro har, haragia kontsumituz berriz, erraz iritsi gaitzke behar minimoak betetzera.

Guretzat onak diren proteina horiek bereziki zer haragietan aurki ditzakegu?

A. C.: Batez ere gantz gutxiko haragietan, oilaskoa eta untxian alegia. Duen gantzaren arabera, baita txahal haragian ere.

Zer onura dituzte haragi proteinek?

A. C.: Proteinek funtzio eraikitzaileak du gure organismoan, organo eta gorpuzteko egitura guztien euskarria baita. Baina gehiengoak ezagutzen ez dituen funtzio asko ere baditu. Bere proteinek,


aminoazido esentzialak kantitate egokian dituzte, organismoak bere kabuz sintetiza ezin ditzakeenak. Gainera, mineralen xurgatze prozesua errazten diote geure organismoari. Beste osagai garrantzitsuak ere baditu: ura (%70 inguru), B taldeko bitaminak, mineral eta burdina.

Ospe handiko ikerlari askoren esanetan, haragi gorri zein zuriak, bihotzarentzat ona den dieta baten partaide izan beharko lirateke. Azken aldiak leporatzen zaizkion arriskuak, dieta desorekatu baten ondorio besterik ez dira.

Lehiaketa martxan, herriko harategietan

Harategietako salerosketatan euskara bultzatu asmoz, Buruntzaldeko udaletako euskara batzordeek kanpaina berri bat abian jarri dute. Saltoki hauetan eskaini ohi dituzten produktuen euskal izenekin kartelak eta txartelak prestatu eta egitasmoarekin bat egin duten bailarako 60 bat saltokietan eseki dituzte. Gainera, abenduaren 17ra arte lehiaketa batean parte har daiteke. Erosketak egitearen truke jolas bat osatzeko txartela jasoko da. Ekimenarekin bat egin duen harategi bakoitzean, 50 euroko bi erosketa bono zozketatuko dira parte hartzaileen artean.

Eska ezazu **haragia** euskaraz



Hankak **Ukondoa** **Urdaiazpikoa** **Solomoa** **Hirugiharra** **Saiheskia** **Txuletak**



- ✓ serrak
- ✓ txuletak
- ✓ gibela
- ✓ txoriñoa
- ✓ odolkiak
- ✓ oilasko-izternak
- ✓ urdaiazpiko-egosia
- ✓ oilasko-bularra
- ✓ urdaiazpikoa
- ✓ txerri-solomoa
- ✓ haragi txikitua
- ✓ saheskia
- ✓ mingaina
- ✓ tripakiak
- ✓ hirugiharra
- ✓ aspizuna

www.buruntzaldea.org

ANDOINGO HARATEGIAK

Lopetegi	Eskolak kalea 2	943 594 288
Etxeberría	Golko Plaza 6	943 590 156
Kukutei	Kale nagusia 59	943 593 152
Etxeberría	Kale nagusia 15	943 590 007
J.R. Jauregi	Agustin de Leitza 25	943 590 260
Aliprox supermerkatua	Ondarraeta 10	943 300 760
Mendikute	Kalebiki 15	943 590 258
Jauregi	Kaleberria 46	943 591 154
Otermin	Plazaola 15	943 591 602
Super BM	Plazaola 1	943 592 881
Super Amara	Gudañen etorbidea 36	943 303 521
Eroski	Zumea Plaza 23	943 304 123
Perurana	Karrika 4	943 592 201
Bitoria supermerkatuak	Arteta 7-9	637 558 005

ASTIGARRAGAKO HARATEGIAK

Martin	Kale Nagusia 27	943 551 299
Artoaenea	Pelotari kalea 21	943 332 215
Aliprox supermerkatua	Kale Nagusia 40	943 556 519

HERNANIKO HARATEGIAK

Alberdi	Kale Nagusia 47	943 552 882
Alkorta	Nafar kalea 11	943 551 881
Balardi	Orkolaga 13	943 550 398
Balardi (Ahorramas)	Nafar kalea 14	943 334 282
Domiko	Kardaberaz 41	943 557 918
Floren	Latsunbeberri auzoa 28	943 332 958
Garin	Kardaberaz 38	943 552 393
Iñaki	Kale Nagusia 12	943 551 247
Mendizabal	Mañe i Flaquer 6	943 555 252
Murua	Larramendi 17	943 550 332
Pineda	Kardaberaz 32	943 551 643
Putzueta	Kardaberaz 39	943 552 787
Ragaani	Kale Nagusia 13	943 336 823
Super B.M.	Eikano 22	943 552 290
Ternez	Montebideo 5	943 330 540

LASARTE-ORIAKO HARATEGIAK

Ahorramás Goxo-Goxo	Kale Nagusia 36	943 370 448
Aralar	Aralar plaza 1	943 365 591
Arsuaga Autozerbitzua	Oztaran Plaza 1	943 361 705
Goxo-Goxo	Geitoki kalea 19	
Etkezarreta	Hipodromo etorbidea 2	943 361 379
Juan Mari	Jaizkibel Plaza 11	943 365 156
Justo	Zumaburu kalea 7	943 362 968
Larrañaga	Kale nagusia 39	943 372 668
Okela	Kale Nagusia 41	943 363 912
Okela	Hipodromo etorbidea 8	943 361 885
San Miguel autozerbitzua	Ola kalea 6	943 362 160
Urdaitegia	Goikale 5	943 364 915

URNIETAKO HARATEGIAK

Mujika autozerbitzua	San Juan 27	943 009 593
Adarra	San Juan 36	943 008 531
Muazpi	Errekalde 14	943 008 406
Aliprox	Errementarien kalea 2	943 333 493
Fagoaga	M ^e Yurramendi 24	943 330 119
Altuna	Idiazabal 19	943 008 169
Goya	Idiazabal 15	943 550 480
Super BM	Etxeberrí plaza 1-3	943 554 077
Comestibles Juani	Idiazabal 10	943 009 172

USURBILGO HARATEGIAK

Imanol Txapartegi	Elute 7	943 361 907
Txapartegi	Kale Nagusia 23	943 364 800
Esnaola	Santuenea 38	943 361 050
Otar Goxo	Zubiaurrenea 2 behe	943 365 581
DIA	Puntapax 3 behe	943 365 959
Alkorta	Beko kalea 4	943 365 742
Arruti	Kale Nagusia 10	943 370 481

www.buruntzaldea.org

Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udalak. Euskarako Batzordeak.



JOSE AZPURUA
UNANUE
TELATUAK • FATXADAK
Obaba kalea 29, Asteasu
943 69 68 02
620 800 186

URDAINTZI S.L.
oraikunizak
943 367 264
649 435 475
649 435 476

Errazkin S.L.
igeltseritza orokorra
943 372 679
649 435 470
Kale nagusia 47, behe A

Josue
Aranzazistroki
943 360 550
606 372 105
Juan Jose enea 1. kalezari

XUKIN
igeltseritza orokorra
663 087 671
943 243 465
Errera Txiki 6. 1B

Antonio
URRUZOLA
Tel: 943 376 415
Faxa: 943 360 510
Asteasuain Industrialdia, 3

BEREZIARTUA
S.L.
egurra eta
egur-aluminiozko
leihoak - eskailetak
Aginaga 943 371 571

BARRENETXE
Balsamendi Arreoi, Imanol
Tel. 943 362 664
Faxa 943 374 002
Barren Etxe Kalea
ZUBETA

 Bainu eta sukalde
erreformak, gasa,
berokuntza...
Jose txo
ikatxeta
687 951 225

Lataillade
gasa, berogintza
klimatizazioak eta
mantenimendua
609 888 021

Rafa
iturgindegia
Bainuko altzariak
Manparak...
943 368 004
Bordaberri kalea 1,

JOSEBA
ARANGUREN
943 830 072
659 883 912

Javier
Orbegozo
Gasa-berokuntza
659 602 789
Errera txiki 13, 3.esk

FERNANDO
PINTURAK
enpapelaketak
lurzoruak...
943 366 019

izagirre@elektzitate.com@hotmail.com
izagirre
elektzitatea
Apld. 37
943 36 50 95
609 06 81 11
943 37 65 87
Gde Argi etxea 07 37
Kale Zahar Auzo
20170 USURBIL (Gipuzkoa)

ARGILAN
Jose Luis Borda Zugasti
industria instalazioak konponketak
943 361 380
629 272 859
Borda berri 5 behea

ofizioen gida

IGELTSERITZA

AROSZTEGIAK

ITURGINTZA

PINTURAK

ELEKTZITATEA

Gida honetan azaldu nahi baduzu: 943 360 321 • publizitatea@noaua.com